LIFE IREKIBAI Proiektua. **Ibai irekiak: Nafarroak eta Gipuzkoak partekatzen dituzten ibaien konektibitate eta habitaten hobekuntza. (LIFE 14 NAT/ES/00186)**

BILERAREN AKTA – Lan taldearen 4. Tailerra. "LIFE IREKIBAI Proiektuaren jarduketen jarraipena egitea"

EGUNA: 2017ko maiatzaren 16a LEKUA: Beralandeta (Bera) ORDUTEGIA: 17:00 -18:15	**Bileraren helburua**	LIFE IREKIBAI Proiektuaren jarduketen jarraipena egitea

Bertaratuak: 18 lagun

Maite	Arzuaga	Foru Administrazioa	Ikastetxeak	IES TOKI ONA BHI BERA	Bera
Martín	Urrutia	Foru Administrazioa	Ikastetxeak	IES MENDAUR DBH Doneztebe	Doneztebe
Luis	Laurnugaria Mihura	Foru Administrazioa-Nafarroa	Mendizainak	Ingurumeneko Mendizaintza	Oieregi -Bertiz
Xabier	Petrirena	Foru Administrazioa	Mendizainak	Ingurumeneko Mendizaintza	Oieregi-Bertiz
Amaia	Angulo Rodeles	Elkarteak, Lanbide Elkargoak eta Unibertsitatea	Elkarte Profesionalak	SIBIC. Sociedad Ibérica de Ictiología	Iruña
Ana	Urtasun Idiazabal	Elkarteak, Lanbide Elkargoak eta Unibertsitatea	Elkarte Profesionalak	Nafarroako Ingurumen Zientzien Elkartea	Iruña
Alfredo	Zugarramurdi Santesteban	Pertsona interesatuak	Ibaiertzeko auzokidea	Ribereño/a	Doneztebe
Jorge	Teniente Vallinas	Arrantza	Arrantzale Elkartea	AEMS Ríos con Vida	Sarriguren
Josetxo	Roncal	Arrantza	Arrantzale Elkartea	ANAPAM. Asoc. Nav. Pescadores a Mosca	Baternain
Gaizka	Aranguren	Zerbitzu sektorea	Ekoizpen-etxea	Labrit Multimedia	Iruña
Miguel Angel	Belza Pérez	Industria sektorea	Errotak	Donamariako Errota	Donamaria

Cesar	Pérez Martín	Foru Administrazioa	Departamentuak	Ekonomia Zirkularraren eta Uraren Zerbitzua	Iruña
Nekane	Vizcay Urrutia	Foru Administrazioa	Departamentuak	Ekonomia Zirkularraren eta Uraren Zerbitzua	Iruña
José	Ardaiz	Foru Administrazioa	Departamentuak	Ekonomia Zirkularraren eta Uraren Zerbitzua	Iruña
Pedro	Castillo	GAN -NIK		Nafarroako Ingurumen Kudeaketa S.A.	Iruña
Maria	Diez de Arizaleta	GAN -NIK		Nafarroako Ingurumen Kudeaketa S.A.	Iruña
Ismael	Perez Mata	GAN -NIK		Nafarroako Ingurumen Kudeaketa S.A.	Iruña
Luis	Sanz Azcarate	GAN -NIK		Nafarroako Ingurumen Kudeaketa S.A.	Iruña
Fermin	Urra	GAN -NIK		Nafarroako Ingurumen Kudeaketa S.A.	Iruña
Ana	Varela Álvarez	GAN -NIK		Nafarroako Ingurumen Kudeaketa S.A.	Iruña
Eva	Zaragüeta	GAN -NIK		Nafarroako Ingurumen Kudeaketa S.A.	Iruña

Eguneko aztergaiak

17:00 LAN TALDEAREN bilera. LIFE IREKIBAI Proiektuaren jarduketen jarraipena egitea

- Arrain espezieen jarraipena egitea. Jose Ardaiz. Arrain Kudeaketarako Bulegoa. N.G.
- Muturluzearen jarraipena egitea eta bisoi amerikarra kontrolatzea. Fermin Urra. Biodibertsitatearen Alorra. GAN-NIK
- Parte-hartze prozesuan egindako proposamenen jarraipena egitea. Ana Varela. Komunikazioa, Parte-hartzea eta Prospektibaren Alorra. GAN-NIK

18:00 Azalpenak ematea eta zalantzak argitzea.

18:15-20:50 Ibaia bisitatzea, Lan Taldearekin eta Jarraipen Batzordearekin

www.irekibai.eu

- Azalpen orokorra eta bisitaren aurkezpena
- Presetako obrak: Berako Zentral zaharra, Endarlatsa
- Bidasoa ibaiko emaria neurtegian neurtzea Endarlatsan
- Beste espezie batzuei buruzko lanak: itsas lanproiaren jarraipena egitea.

Luis Sanz Azcarate eta Pedro Castillo. Uraren Alorra. GAN-NIK

Aurkezpenetako aztergaiak

- Ana Varelak eskerrak eman dizkie parte-hartzaileei eta eguneko gai-zerrenda aurreratu du. Erran du parte-hartzaile bakoitzari emaniko dokumentazioan proiektuaren ekintzak jaso direla, eta era berean, LIFE IREKIBAI Proiektuko parte-hartze prozesuaren proposamenak ere (ikusi akta honetako 1. Eranskina). Bukatzeko, eskatu du agiri honetako edozein gairi buruzko galderak egiteko aurkezpen aurreikusiak bukatutakoan.

- José Ardaizek azaldu du zer jarduketa egin diren kontserbazio-ekintzek (oztopoak eraistea) kolakan, itsas lanproian eta amuarrainean izaniko eragina baloratzeko, eta oztopo jakin batzuetan arrainendako dauden pasabideen eraginkortasuna neurtzeko, orain arteko analisiak eta bildu eta ebaluatu diren datuak emanda. Nabarmendu ditu, halaber, Bidasoa ibaiko izokin populazioaren bilakaeraren jarraipena egiteko programak, Mendizaintzaren lanari esker, eta Departamentuko eta GAN-NIKeko langileen laguntza teknikoarekin; hau da, ibaian goiti doan populazio ugaltzailearen kontrola egitea eta haien ugalketaren jarraipena egitea, eta populazio gaztearen kontrola egitea.

- Fermín Urrak azaldu du zertan den muturluze piriniotarraren egoera, Batasuneko Interesa duen espeziea baita. Gainbehera azkarra izan du bere banaketa-eremu osoan. Nabarmendu du zer ekintza egin diren ezagunak diren populazio guneen kontserbazio-egoera ebaluatzeko, eta espezieak zer baldintza ekologiko behar dituen, bai eta habitataren egoera nola dagoen jakiteko egin diren ekintzak ere. Azaldu du, era berean, nola aztertzen ari diren muturluze piriniotarraren populazioak, zer metodologia erabili den, eta zer emaitza izan diren orain arte. Azaldu du, halaber, zer ekintza egiten ari diren bisoi amerikarrak eragindako arazoa moldatu nahian, espezie inbaditzaile horrek bisoi europarraren ataka kritikoa areagotu baitu (galzorian dago). Erran du zertan datzan Reynolds metodologia (2013), eta ondoren, ibilbide orokorra egiteaz gain, laburbildu du zer eremutan egin diren laginketak, zer plataforma eta tranpa paratu diren, eta zenbat ale harrapatu diren, eta zer emaitza izan diren orain arte.

- Ana Varelak, bere aldetik, Life Irekibai proiektuaren laburpena egin eta ekarri du gogora: hau da, helburuak, jarduketa-eremuak, aurrekariak, egutegia, parte-hartze prozesuaren faseak, e.a. Horrez gain, azaldu du zer egin den komunikazio-ekintzetan eta zer dagoen egiteko, eta oroitarazi du Irekibairen webean dagoela LIFE IREKIBAI proiektuari dagokion dokumentazio oro. Halaber, bertaratutako guztiak animatu ditu ingurumeneko boluntariotza jardueretan parte hartzera, datozen asteetan eginen baitira inguruko hainbat udalerritan, Life IREKIBAI proiektuak lagundurik. Gogoratu du, halaber, saio honetan bezala, proiektuaren iraunaldian, jardunaldiak eta tailerrak eginen direla proiektuaren jarduketen jarraipena egite aldera.

  Saio honetan egindako aurkezpenak webean jaitsi daitezke: egin klik hemen

Galderen txandan, galdera hauek egin dira:

Iparraldearekiko koordinazioa bisoi amerikarraren kontrolaz eta muturluze piriniotarraren jarraipena egiteaz.

Parte-hartzaileek galdetu dute koordinaziorik ote dagoen Iparraldearekin ekintza horiek guztiak egiterakoan, eta LIFE frantses batek muturluze piriniotarraz eginiko informazio bat erakutsi da (Life Desman),

Azalpenak: Aurreratu da koordinazio hori lantzen ari dela, H2Ogurea (POCTEFA) mugaz gaindiko proiektuko ekintzei esker, mugaz gaindiko ibaiak koordinaziopean kudeatzeko xedea baitu: Bidasoa, Urdazuri eta Urumea, eta zehazki, Lankidetza Esparrua izeneko ekintza barnean, H20gurea proiektua lagungarria da ***Ur partekatuak kudeatzeko Gutuna*** aplikatzeko, mugaz bi aldeetako hainbat entitatek

sinatutakoa, eta lankidetzarako eta informazioa trukatzeko esparru bat ezarri du partekatzen ditugun ibaien esparruan.

Arrainendako pasabideen jarraipena egitea

Galdetu dute ea bestelako jarraipenik erabiltzen ari ote den arrainendako gailuen funtzionaltasuna ebaluatzeko, gaurko saioan azaldu direnez landara.

Azalpenak: LIFE IREKIBAI proiektuaren barnean, ez da halakorik proposatu, aurrekontu gaia dela-eta. Departamentuak, ordea, aukera hori aztertu zuen, baina oraingoz baztertu da, urak uher daudenean mugak dituelakoz.

Eta saioa bukatutzat jo da 2017ko maiatzaren 16ko 18:15ean, ibaia bisitatzera joateko.

Ibaira egindako bisitan ateratako argazkiak esteka honetan ikusgai.

1.ERANSKINA

1. LABURPENA: LIFE IREKIBAI proiektuko ekintzak eta parte-hartze prozesuko proposamenak

Ekintza edo kudeaketa:
✓ Gauzatua
✓ Gauzatzen ari da
↻ Gauzatzeko

1. *Irekibai Proiektuko ekintzen jarraipena egitea*

Kodea	Helburua		Espero den emaitza		Emaitza / Ebaluazioa
Ac-C6	Endarlatsako tartea iragazkortzea (Bidasoa ibaia).	✓	Endarlatsako presa ezabatzea.	✓	2016. Txostena eta bideoa WEBean.
			RST tranpa birkokatzea.	✓	2017. Txostena Webean
Ac-C7	Berako tartea iragazkortzea (Bidasoa ibaia).	✓	Berako presa ezabatzea.	✓	2016. Txostena eta bideoa WEBean.
Ac-C8	Ezkurra ibaiaren Iturengo tartea iragazkortzea (Bidasoko arroa).	↻	Iturengo presa ezabatzea.	↻	Gauzatzeko. Agorraldian- 2017
Ac-C9	Txarutako erreka iragazkortzea (Bidasoko arroa).	↻	Hegoaldeko presa iragazkortzea	↻	Gauzatzeko. Agorraldian - 2017
			Iparraldeko presa iragazkortzea.	↻	Behin betiko txostenaren zain. Jarduketa baztertu da.
Ac-C10	Bidasoa ibaia; esku hartzeko aukerarik handieneko tarteak leheneratzea.	✓	Hainbat tarte leheneratzea, Bidasoko arroa	✓	Gauzatzen ari da. Espedientea irekia-jarduketen proposamenak. Landa bisitak 2016-2017
Ac-C11	Bisoi amerikarraren (*Neovison vison*) presentzia Nafarroan eragoztea edo murriztea.	✓	114 plataforma finko eta argazki-tranpako 10 kamera paratzea.	✓	Egina,2016
			Urtero, 4 tranpa kanpaina + 4 txosten egitea	✓	Gauzatzen ari da: 2016an kanpaina egin da eta txostena webean
Ac-D1	Aldaketa geomorfologikoak Leitzaran eta Bidasoa ibaietan ebaluatzea, munta handi samarreko lanak egin diren tokietan.	✓	Munta handi samarreko ondorioek geomorfologian zer ondorio eragin duten jakitea. 2 txosten.	✓	Gauzatzen ari da.2017
Ac-D6	Muturluze populazioek (*Galemys pyrenaicus*) Bidasoa eta Leitzaran ibaietan zer-nolako kontserbazio-egoera duten ebaluatzea.	✓	Populazioen egoera ezagutzea. 2 txosten.	✓	Gauzatzen ari da
			Lotutako kontserbazio-ekintzen eraginkortasuna ebaluatzea.		
Ac-D7	Proiektuak kolakarentzat (*Alosa alosa*) zer eraginkortasun duen ebaluatzea.	↻	Espeziearen "Kopula indizea" adierazlearen hasierako eta bukaerako balioa jakitea. 2 txosten.	↻	Gauzatzekoa, aurreikuspenekin bat.
			Kontserbazio-ekintzek espeziearengan zer-nolako eraginkortasuna duten jakitea. 2 txosten.		

www.irekibai.eu

Ac-D8	Proiektuak itsas lanproiarentzat (*Petromyzon marinus*) zer eraginkortasun duen ebaluatzea.	✓	Espeziearen adierazle multzo baten hasierako eta bukaerako balioa ezagutzea.	✓	Gauzatzen ari da
			Kontserbazio-ekintzek espeziearengan zer eraginkortasun duten jakitea.		
Ac-D9	Proiektuak izokinarentzat (*Salmo salar*) zer eraginkortasun duen ebaluatzea	✓	Itsasora migratzen duten ale gazteen populazio tamaina eta ezaugarriak ezagutzea, bai eta haien aldaketa ere. 2 txosten.	✓	Gauzatzen ari da.
			Itzultzen diren helduen populazio tamaina eta ezaugarriak ezagutzea, bai eta haien aldaketa ere.		
			Kontserbazio-ekintzek espeziearengan zer-nolako eraginkortasuna duten jakitea.		
Ac-D10	Bidasoa eta Leitzaran ibaiko arrain-pasabideetarako gailuen eraginkortasuna ebaluatzea.	✓	15 oztopo noraino gainditu ote daitezkeen baloratzea. 3 landa txosten.	✓	Gauzatzen ari da.
			Gabeziak dituzten gailuak identifikatzea.		
			Baimendunei gabezien berri ematea, bai eta nola mantendu jakiteko aholkuak ere.		
Ac-E1	Proiektua komunikatu eta hedatzea, haren aurrerapenak eta emaitzak erakutsita, eta ibai-espazioaren balioetan sakonduta.	✓	Proiektuaren weba.	✓ ✓	2016 webean argitaratzea Gauzatzen ari da: proiektuaren emaitzak argitaratzea.
			Parte-hartze Prozesua	✓ ✓	1. Fasea egina 2. Fasea gauzatzen ari da. - Ekintzen jarraipena egitea eta proiektuaren emaitzak - CS ibaiko bisita 2017ko udaberrira arte atzeratu zen - 2017, aurreikuspenarekin bat
			Boluntariotza	✓	Gauzatzen ari da. Informazioa webean
			Eskola programa	✓	Gauzatzen ari da. Informazioa webean
			Erakusketa ibiltaria.	↻	Gauzatzekoa. 2017
			Azken mintegia.	↻	Gauzatzekoa, 2020.
			Argitalpenak	✓	Gauzatzen ari da.

2. Parte-hartze prozesuaren 1. fasean egindako proposamenen jarraipena/ 2. fasea

Gaia	Helburua		Emaitza
Presak eraistea	Aztertzea bideragarri ote den Endarlatsako presako uhateak irekitzea, presa bera ez eraisteko.	✓	Iradokizuna baztertu da 2016/06/12. Txostena webean
	Bide Berdeko horma konpontzea. Endarlatsan.	✓	Ibaiak Leheneratzeko Atalaren diruekin egina. N.G.
	Berako presaren eraispena aurreratzea	✓	2016 egina

	Berako ubidea betetzea, Berako eta Endarlatsako obra hondarrekin (Luzera, guztira = 750m)	✓	Gauzatzen ari da, LGITA Departamentua. Nafarroako Gobernua eta Berako Udala- 2017ko martxoa: 130 m-ko lubeta, Berako eta Endarlatsako obra hondarrekin.
	Txarutako iparraldeko presaren proiektu teknikoa egitea, jabearekin negoziatuta.	↻	Jarduketa baztertu da
	Lanak kontratatzeko prozedura: tokiko enpresek jaso dute obrak esleitzeko prozeduretan aurkezteko gonbitea.	✓	Gauzatzen ari da
	Berako ur kolektorearen konponbidea aztertzea (ezustea: egoera okerragoan)	✓	Gauzatzen ari da. Sendotzen da, NILSAri jakinarazi zaio. NILSAk konponbideetarako alternatibak ditu aztergai.
Espezieen jarraipena egitea	Jarraipena eginen da jakiteko nola eragiten dion burtainaren habitatari Txarutako presa eraisteak (eraispena 2017an).	↻	Gauzatzen ari da: txostenaren zain.
	Errekako lanproia. Jakinaraziko da zer datu biltzen dituen arrantza atalak Orabidean.	↻	Gauzatzekoa, aurreikuspenekin bat.
	NGko arrantza atalari jakinaraziko zaio badela interesa azterlanak edo proiektuak egiteko, errekako bertze espezie batzuk berreskuratzen saiatzeko (barboak, txipak).	↻	Gauzatzekoa.
	Dabilen emaria kaudalitroekin neurtzeko proposamena aztertuko da zenbait pasabidetan; pasabide horien gainditze maila aztertzen den haietan, hain zuzen, eta kostuaren arabera.	✓	Gauzatzen ari da
Leheneratze ekologikoa	Lesakako Zalain Zokoko presa eraistea Ireki Bairekin edo Nafarroako Gobernuaren bitartekoekin.	↻	Gauzatzekoa, aurreikuspena 2017an, Ibaiak Leheneratzeko Atalaren diruak.
	Jardunbide Egokien eskuliburua leheneratzeari buruz. NGk, GFAk eta CHCk leheneratze lanetan erabil ditzaketen irizpideak integratzen saiatuko da. (Arrazoiak biltzea, ibaietan drainatze-lanik ez egitea justifikatzeko).	↻	H20GUREA proiektuarekin gauzatzekoa 2018
	Udalen eskaerak arroko hainbat tarte leheneratzeko.	✓	Gauzatzen ari da: Espedientea irekia-jarduketen proposamenak. Landa bisitak.
	Espezieak ezabatzeko lanen jarraipena egitea, bazterrak berriz ere kolonizatu ez ditzaten.	↻	Gauzatzekoa, H20GUREA proiektuarekin
Ibai-dinamika /Uholde arriskua	Drainatze-lanak ibaiko hainbat tokitan egiteko baimenak, uholde-arriskua dagoelako (Udalak).	✓	Gauzatzen ari da: Espedientea irekia-jarduketen proposamenak.
	Berako presa eraitsi ondoren, uholde-mapak eguneratzea.	✓	Azterketa egina 2017.
Kalitatea	Doneztebeko isurketa arazoak konpontzea, araztegiak gaizki funtzionatzen baitu.	✓	Egina: Nilsaren eskuetan utzi da, eta egoera 2017an berrikusiko du
Emariak	Behar adinako emaririk ez: erregeletak ur-ibilguan paratzea, Nazako emari ekologikoa betetzen dela ikusteko. Emariak markatzea ur txiki eta ertainetan (CHC proposamena) Emari ekologiko modularrak hitzartzeko prozesua, CHC eta baimendunak	✓	Egina: Nazan erregeleta paratzea, 2016ko agorrila Gauzatzen ari da: emariak ur ertainetan markatzea, egiten ari da Gauzatzekoa: bilerak CHCrekin eta baimendunekin

www.irekibai.eu

	Ez berritu iraungitzen diren baimen hidroelektrikoak - Lanak epe laburrera: Oronoz Mugairi, - Lanak epe luzera: San Tiburtzio2030,Bidasoko ardatzaren gainerakoak 2016ean iraungiko dira.	✓	Gauzatzen ari da: CHCren eskumena: esan du berez ez direla berritzen iraungitzen diren baimen hidroelektrikoak.
	Emarien kontrola hobetzea, NGk eta CHCk ekintzak koordinatuta	✓	Gauzatzen ari da. Egin ohi da.
	Jaitsierako migrazioan babes sistema bat paratzea, izokin gazteak ura banatzeko ubideetan ez sartzeko, eta Zentralaren errendimenduari eragin gabe.	↻	Legeak ez ditu zentralak behartzen; borondatezko erabakia da.
	Emakidak trukatzea: erabiltzen diren mini-zentral hidroelektrikoen ordez energia eolikoko estazioak (aerosorgailuak)	✓	Egina. Proposamena NGko Nafarroako 2024 bitarteko Energia Planera helaraztea.
Arrantza	Arrantzarekin lotutako 8 proposamen: kezka ubarroi, koartza, loina gehiegi dagoelako; amuarrainak eta izokin birpopulatzea; araudiaz, ea.	✓	Egina: Arrantza Nafarroan kudeatzeari buruzko proposamenak **parte-hartze prozesuko** lan taldeari helarazi zaizkio.

3. Udalek igorritako proposamenak honako hauek eskaturik: Kirol Klubek, Berako, Baztango eta Nazako Arrantza Elkarteek.

Gaia	Proposamena		Emaitza
Arrantza	1- Amuarrain populazioak berreskuratzea, Bidasoan Mugairiko arrain-haztegitik.	✓	Egina - Arrantza Nafarroan kudeatzeari buruzko proposamenak **parte-hartze prozesuko** lan taldeari helarazi zaizkio
	2- Espezie aloktonoendako berezko jarduketa plana inguruko ibaietan.	✓	
	4- Kudeaketa eta jarraipenerako tokiko batzorde bat sortzea, Udalak, eragileek eta ibaiarekin zerikusia duten elkarteek parte hartuta.	✓	Baztertu da: Irekibaiko Jarraipen Batzordeak baztertu du Batzorde hau bertze erakunde sozial batzuei irekitzea, parte-hartze prozesuaren Lan taldean ordezkatuak baitaude.
	5- Erabakia N.G.ko Ingurumen Departamentura helaraztea, bai eta mozioaren sustatzaileari ere.	✓	Egina: Erantzun ofiziala Departamentura eskaera igorri duten Udalei: Zubieta, Elgorriaga, Etxalar, Saldias, Eratsun, Bera, Arantza, Ezkurra, Baztan.
Presak eraistea	3- Berako San Martingo presa Endarlatsakoa baino lehen eraistea, eta hura eraistearen ondorioak probatzea uhatea bere osoan irekita, bi denboralditan jarraipena eginik. Berako San Martingo presa eta Endarlatsako presak eraistea.	✓	Egina: - Berako presaren eraispena aitzinatzea. 2016ko iraila. Aztertzea bideragarri ote den Endarlatsako presako uhateak irekitzea, presa bera ez eraisteko. (Iradokizuna baztertu da- 2016ko ekaina). - Endarlatsako presa eraispena. 2016ko urria.

www.irekibai.eu